

**2
0
1
1
/
1
2**

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

HIZKUNTZA GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:

Jarraibideak

Probak bi zati ditu.

Lehenengo zatian testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu. Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat
- B 200.000, gutxi gorabehera
- C Milioi bat
- D Zenbait milioi

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat
- B 200.000, gutxi gorabehera
- C Milioi bat
- D Zenbait milioi

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Iruñean, zer da ospe gehien duena?

.....

Galdera batzuk errazagoak dira, eta beste batzuk zailagoak. Galdera bat ez baduzu ulertzen segi lanean eta saiatu geroago.

Probaren bigarren zatian idazlan bat egingen duzu, emanen zaizkizun argibideak jarraituz.



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

PRINTZESA BEGI-ZULO

Ipuin honetan printzesa txiro bat agertzen da, begi-zuloekin, San Borondon uharteko erregearen alaba. Begirada triste nekatua dauka, neguko arratsalde lainotsua bezalakoa.

Printzesa txiroa zen; izan ere, ihes irten zen San Borondon uhartetik, ezer gabe. Printzesak begi-zuloak zeuzkan; izan ere, leher egiteraino nekatzen zen. Printzesak begirada triste eta goibela zeukan; izan ere, asko sufrutua zen. Eta, hala ere ... Eta hala ere, bazeukan bihotzaren barruan itxaropenezko su txiki bat, San Borondonen jaioa baitzen, eta uharte hartako jendea ausarta eta ameslaria baita.

Garai batean, uharte hartako neskatilak osasuntsu eta pozik handitzen ziren, eta harik eta ... Harik eta eltxo gaizto batek itsasoa zeharkatu, kasualitatez uhartera iritsi, ahal zuen guztiari hozka egin eta izurrite bat sortu zuen arte. Jende asko hil zen. Erregea hil zen. Eta erregina larri gaixotu zen; bihotza indarge geratu zitzaion. Eta orduan ... Eta, orduan, ahal zuten guztiek ihes egin zuten San Borondon uhartetik; itsasontzian, txalupan, surf-oholean ... Eta, aurrerantzean, haietako inor ez zen itzuli; izan ere, behin uhartetik irtenez gero, ia ezinezkoa da itzulerako bidea aurkitzea.

Adio, uharte maitea,
San Borondon nirea;
Orain, ipuinetan baino ez dut
entzungo doinu zurea.

Printzesa Begi-zulo eta haren ama belaontzi batean itsasoratu ziren, eta, haize bultzaturik, bizkor zeharkatu zuten itsasoa, harik eta ekaitz batek itsasertzera ekarri zituen arte.

Belaontzia
Ur gainean ibiltari;
Izurdea
Aurretik gidari.

Belaontzia txiki-txiki eginik hondoratu zen eta itsasoko poliziak salbatu zituen naufragoak. Jendeak esaten zuen patera batean iritsiak zirela eta beren lurrera itzuli behar zuela. Baina inork ez zekien nondik itzuli San Borondonera, eta ezin izan zituzten atzera bidali.

Printzesak etxebizitza txiki bat hartu zuen Palazio kalean, eta supermerkatu batean hasi zen lanean, kutxazain. Ordu libreetan, ama zaintzen zuen eta etxeko lanak egiten zituen; oso goiz jaikitzen zen printzesa eta oso berandu oheratzen, logaleak jota. Eta, hala, begi-zuloak agertu zitzaizkion. Erreginaren bihotzak San Borondon uhartearen falta



sumatzen zuen, eta errege zenarena. Noizbehinka, taupadak gelditu egiten zitzaizkion; orduan, printzesak bularra igurtzen zion amari eta berpiztu egiten zuen.

Taupada haiek
gauean aieneka
bildotsak zirudien
zelaian beeka.

Printzesa Begi-zulo amarentzat bizi zen, ama hark bera txikitari zaindu zuen antzera, beste leku batean, beste denbora batean, musika leunen eta jasmin-usainen artean. Supermerkatutik irten bezain laster, printzesa etxera itzultzen zen bizkor, frutaz eta barazki gozoz zamaturik. Printzesa lan eta lan aritzen zen, lo gutxi egiten zuen, begi-zuloak zeuzkan, eta ez zirudien printzesa.

Printzesa Begi-zulo
beti begi loti,
esnezko dirudi
ezpain txantxangorri.

Printzesa gaixoak ez zeukan denborarik festara joan eta printze bat bilatzeko, ipuinetako printzesek bezala. Ez zeukan soineko distiratsurik janzteko, ez kolore-hautsik masailak gorritzeko. Haren esku lakarrei kartoi eta diru usaina zerien. Baina, zer, eta, egun batean, hor sartzen da printze bat supermerkatuan.

Printze orlegi
indartsu eta galanta,
hontzaren begi
eta sudur aparta.

Printzea kamioi-gidari ibiltzen zen, urdaiazpikoak banatzen.

Ene printze galanta
hanka beltzekoa,
bihotz taupakaria
soin maratzekoa.

Urdaiazpikoa bizkarrean, printzea alai sartu zen supermerkatuan barrena. Printzea printzesaren ondotik igaro zen. Printzea printzesaren ondoan gelditu zen. Sudur handia hurbildu, eta esan zuen:

- Usaina dago, usaina dago ...
- Zeren usaina? – galdetu zion printzesak, eta gorritu egin zen.
- Printzesaren usaina dago.

Txikitandik amesten zuen halakoxe printze bat, inoiz ez baitzuen nahi izan printze urdinik. Ez bat eta ez bi, printzesak afaltzera gonbidatu zuen gau hartan bertan printze sudur-handia.

Laster izan ziren bikote. Printze sudur-handiak printzesari ama erregina zaintzen lagundu zion ezkur-urdaiazpikoa janaraziz eta, kantari, bihotza alaituz.

1. Nor zen printzesa *Begi-zulo*?

- A. Printzesa aberats bat
- B. Printzesa itsu bat
- C. Printzesa pobre bat
- D. Printzesa alai bat

2. Zergatik zeuzkan printzesak *begi-zuloak*?

- A. Printzesa txiroa zelako.
- B. Lan asko eta lo gutxi egiten zuelako.
- C. Begi beltzak eta begirada aparta zuelako.
- D. Erreginak izen hori jarri ziolako.

3. Zer gertatu zen *San Borondon* uhartean?

- A. Soldaduak uhartera iritsi eta gerra hasi zen
- B. Naufragoak uhartera iritsi ziren
- C. Printzesa galdu egin zen eta ezin zuen itzultzeko bidea aurkitu
- D. Eltxo bat uhartera iritsi eta izurrite bat sortu zen

4. Zergatik hil zen jende asko *San Borondon* uhartean?

- A. Epidemiagatik, izurriteagatik.
- B. Janari faltagatik, jendea gose zelako.
- C. Gerragatik, borroka egiteagatik.
- D. Itsasoko izurdearengatik.

5. Poliziak salbatu ondoren, jendeak esaten zuen Printzesa eta bere ama beren lurrera itzuli behar zirela. Zergatik nahi zuen hori jendeak?

- A. Iheslariak zirelako.
- B. Atzerritarrak zirelako.
- C. Naufragoak zirelako.
- D. Belaontzia hondoratu zitzaielako.

6. San Borondon uhartetik ihes egin ondoren printzesak etxebizitza txiki bat hartu zuen Palazzo kalean. Printzesa baldin bazen, zergatik ez zuen hartu jauregi handi eta dotore bat?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Printzesa pobrea zelako.

7. Zertan egiten zuen lan printzesa Begi-zulok?

- A. Palazzo jauregian, zerbitzari.
- B. Denda batean, saltzaile.
- C. Supermerkatuan, kutzazain.
- D. Kutxan, banketxean.

8. Printzesa supermerkatutik etxera itzultzen zen bizkor, frutaz eta barazki gozoz zamaturik. Horrek esan nahi du:

- A. Supermerkatutik lapurreta egin ondoren azkar itzultzen zela etxera.
- B. Lehenbailehen itzultzen zela etxera, gauza gozoak jateko.
- C. Supermerkatutik azkar itzultzen zela etxera, baina minberaturik.
- D. Etxera janari asko eramaten zuela.

9. Printzesaren amari, noizbehinka, bihotzaren taupadak gelditu egiten zitzaizkion, eta orduan...

- A. Printzesak bihotzez abesten zion.
- B. Printzesak bularra igurtzen zion.

- C. Printzesa gaixotu egiten zen.
- D. Printzesa oso triste jartzen zen.

10. Ipuinean jartzen du “Printzesa begi-zulo amarentzat bizi zen”. Zer esan nahi du horrekin?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	<ul style="list-style-type: none"> • Ama asko zaintzen zuen. • Askok saiatzen zen ama zaintzen. • Esfortzu handiak egiten zituen ama zaintzen. • Ama gaixo zegoen eta berak zaintzen zuen. • ...

11. Zergatik printzesa ez da joaten festetara?

- A. Soineko dirdiratsurik ez duelako.
- B. Denborarik ez duelako.
- C. Printzeak ez diolako eskatu.
- D. Nahi ez duelako.

12. Seigarren olerkian aipatzen da “Printzesa Begi-zulo beti begi loti, esnezko dirudi, ezpain txantxangorri”. Zer du Printzesak esnezko dirudiena?

- A. Azala
- B. Begiak
- C. Soinekoa
- D. Ilea

13. Zenbatu gertaerak 1etik 5era irakurketan gertatu diren ordenaren arabera.

- 5** Printzea eta printzesa bikote egin ziren.
- 4** Printze bat supermerkatuan sartu zen.
- 3** Printzesa supermerkatu batean lanean hasi zen.
- 1** Uhartean izurrite bat sortu zen.
- 2** Printzesak eta bere amak San Borondonetik ihes egin zuten.

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Ongi zenbaturiko gertaerak 2 edo gutxiago dira.
1	1	3-4 gertaera ongi zenbatuak.
2	2	5 gertaerak ongi zenbatuak (5 – 4 – 3 – 1 – 2)

14. Printze sudur-handia ohartu zen Begi-zulo printzesa zela. Egia esan, printzesek usain berezia al dute?

- A. Bai, baina oso sudur handia eta zorrotza behar da hortaz ohartzeko
- B. Bai, baina printzeak bakarrik ohartzen dira usain horretaz.
- C. Bai, printze eta printzesa direnek kolonia bereziak erabiltzen dituzte.
- D. Ez, ezin da ezagutu nor den printzesa usainarengatik.

15. Ondorengo esaldiak printzesa Begi-zuloren gainekoak dira. Adierazi “E” batekin egiak direnak eta “G” batekin gezurrezkoak direnak:

- E** Izurritearen ondorioz aita hil eta ama gaixotu zitzaion.
- G** Printzesa aberatsa da, baina lan eginez bizi nahi du.
- G** Lana bere erresumako supermerkatu batean egiten du.
- E** Urdaiazpikoak banatzen dituen printzea ezagutzen du.

E

Kamioilari baten bikote egiten da.

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Ongi adierazitako esaldiak 2 edo gutxiago dira.
1	1	3-4 esaldi ongi.
2	2	5 esaldiak ongi.

16. Non egon daiteke San Borondon uhartea?


- A. Ezin da jakin.
- B. Mapa guztietan agertzen da.
- C. Nafarroako toki bat da.
- D. Donostiatik hurbil dagoen uhartea da.

Zer da emigratzea?

Zure bizilekua utzi eta beste leku batera bizitzera joatea. Herrialde edo hiri batetik beste batera bidaiatzea da. Ez dauka zer ikusirik oportetan joatearekin, emigratzen badugu askoz denbora gehiagorako delako. Beste leku batean bizitza berri bat hasi eta haren parte izatea.

Pertsona bat bere jaioterritik ateratzen denean emigrantea da. Bizitzeko aukeratu duen herrialdeko biztanleentzat, inmigrantea da.

FETE-UGT, MEC eta CIDE erakundeek proiektua.



17. Goiko testua da

- A. Albiste bat
- B. Ipuin bat
- C. Eskutitz bat
- D. Azalpen testu bat

18. Zer da *emigratzea*?

- A. Beste herrialde batera denbora luzez oportetan joatea.
- B. Zure herritik kanpo, beste herri batean, bizitza berri bat hastea.
- C. Jaioterritik ateratzea.
- D. Denbora luzez bidaiatzea.

19. Nafarroatik Alemaniara lanera eta bizitzera joaten denak...

- A. Nafarroatik emigratu egiten du.
- B. Nafarroatik immigratu egiten du.
- C. Oporraldi bikaina egiten du.
- D. Jaioterriz aldatzen du.

Idazmena zuzentzeko irizpideak

Lehenik, lana zuzentzen denean puntuazioak ematen dira alderdi hauetan:

- Aurkezpena eta ortografia
- Istorioaren koherentzia
- Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Alderdi bakoitzari 1etik 4rako puntuazioa emanen zaio, ondoren adierazten diren irizpideen arabera:

	1. puntuazioa	2. puntuazioa	3. puntuazioa	4. puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Oso desegokia ziklorako. Idazkiaren aurkezpena txarra da akats ortografikoak asko dira.	1. puntuazioaren (puntuazio desegokia) eta 3. puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 3. mailaren eskakizunetako hiru betetzen ditu.	Ziklo honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> • Garbi idatzita dago (ez da urraturik...) • Letra argia eta erregularra da. • Marjinak ongi zehazturik daude. • Ortografia: bost akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s idazterakoan egindako 5 akatseko 1 kontatzen da), testu laburrak direnean (1-15 lerro). Zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean. 	Bikaintasuna erakusten du, zikloan eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.
Istorioaren koherentzia	Oso desegokia ziklorako. Koherentziarik eta egiturarik gabeko istorioa kontatu du. Edukiari dagokionez, justifikatu gabeko jauziak daude.	1. puntuazioaren (puntuazio desegokia) eta 3. puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 3. puntuazioko eskakizunetako lau betetzen ditu.	Ziklo honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> • Egitura argia: aurkezpena, korapiloa eta amaiera. • Hiru paragrafo ditu, gutxienez. • Bilakaera tematikoa: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsik ere; istorioa erraz segitzen da. • Perpausak ideia osoak adierazten dituzte. • Perpaus batzuk besteekin ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). • Pertsonaiak eta haien ekintzak ongi zehazturik daude (badaki zeinek zer egiten duen). 	Bikaintasuna erakusten du, zikloan eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko eskakizunak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkiak ezaugarri hauek ditu: sormena, argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (orduan; geroago; hala ere, etab.; ez da behar ez den errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa).
Zuzentasun gramatikala	Oso desegokia ziklorako. Testua ez da egituratu perpaus argiro bereizietan. Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi. hitz egiten duen bezala idatzi du. Akats gramatikalk asko egin ditu.	1. puntuazioaren (puntuazio desegokia) eta 3. puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 3. puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Ziklo honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> • Sintaxi aldetik ongi eraturiko perpausekin egituraturako idazkia. • Aditz-denborak zuzen erabili ditu. • Ez du komunztadura akatsik (ergatiboa, plurala, deklinabideak...) • Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez. • Argi eta garbi bazterrean utzi du lagunarteko eta ahozko hizkuntza. • Pertsonaiak eta ekintzei buruzko informazio interesgarria ematen duten adjektiboak eta adberbioak erabili ditu. 	Bikaintasuna erakutsi du, zikloan eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko eskakizun guztiak (6) bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkian ez da akats gramatikalk, hiztegia aberatsa da eta sintaxia menderatzen dela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testuak oso ongi idatzita daude, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4. mailan gaudela.

Oharra: "0" puntuazioa soilik eman da ikasleak ez badu lana egin.

Eranskin honetan aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako zenbait testu jaso dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioak ikusi daitezke, eta baita zuzenketen deskripzioak ere, zehatz-mehatz. Ikus daitekeenez, ez da prozedura mekanikoa. Zuzentzaileak kasuz kasu baloratu behar du adierazle bakoitzaren egoera; askotan argi dago, baina beste batzuetan ez da argi hautematen baldintza hori betetzen duen ala ez, eta puntuazioak ematerakoan nolabaiteko malgutasunez baloratu behar da.

1. adibidea

20. Imagina ezazu emigrante bat zarela eta zure lagun bati edo familiari eskutitz bat idazten diozula, herrialde berrian aurkitu duzun bizimodua nolakoa den eta nola sentitzen zaren kontatuz.

idazlana

Emigrante ezin dut hemen ezer ondo mago,
bizimodu ezak eta abegiana aurkitu duta.
Laguna berriak ditut eta ezer ondo mago
beraitin, etea ezer ondo da jabetza dut
bean eta ez lan egiten dut sukaldari
ezer ikasten ezin mago. Buena niri bi-
rita ezitara gure magoak berki lot dunt
5 urte ditu Laguna ditzen da jaban-
tea aurkitu gaita. Nire lagunon
izendak dira: Mikel, Ander, Azarita
migoak

Galdera		1, 2, 3 edo 4
20.	Aurkezpena eta ortografia	1
21.	Koherentzia	1
22.	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	2

Puntuazio horiek Educan sartu behar dira (20., 21. eta 22. galderak).

Aurkezpena eta ortografia

- Itxura garbia. *Onargarria, baina bada zirriborroren bat (zuzenketak).*
- Letra argia eta erregularra. *Oro har letra ez da oso erregularra; dena den, irakurgarria da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Marjinak errespetatzen ditu.*
- Ortografia. *Bost ortografia akats baino gehiago daude, ortografia naturala barne.*

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzetatik, gutxi gorabehera, bi betetzen ditu; beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.

Istorioaren koherentzia

- Egitura. *Ez du eskutitzaren berezko egitura errespetatzen.*
- Paragrafo kopurua. *Testua ez dago paragrafotan egituratuta.*
- Bilakaera tematikoa. *Nahiz eta ideia gutxi adierazi, nahasia da.*
- Perpausek ideia osoak adierazten dituzte. *Ez dago ideien eta perpausen arteko elkarrekikotasunik.*
- Lotutako perpausak (lokailuak...). *Lokailuen erabilera oso pobrea da.*
- Ongi zehaztutako pertsonaia eta ekintzak. *Pertsonaiak eta ekintzak ongi zehazturik daude.*

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetatik soilik bat betetzen du. Beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.

Zuzentasun gramatikala

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Perpausen egitura oso oinarritzkoa da; baina ez dago akatsik.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Aditzaldia zuzen erabili du.*
- Komunztadura. *Oro har, ez dago komunztadura akatsik.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Ez du mendeko perpausik erabili.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Testuak ahozko erregistroaren eragina islatzen du.*
- Adjektibo eta adizlagunen erabilera. *Lexikoa ez da aberatsa; halere, adjektiboen eta adizlagunen erabilera onargarria da.*

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetatik lau betetzen dit. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.

2. adibidea

20. Imagina ezazu emigrante bat zarela eta zure lagun bati edo familiari eskutitz bat idazten diozula, herrialde berrian aurkitu duzun bizimodua nolakoa den eta nola sentitzen zaren kontatuz.

idazlana

Kaixo ama Amets maiz zer onak gaudete,
burkatu ez dizudalako ~~ezan~~ lehenago
baina ez dut denbora izan. Iha dakigu
bidali dizudala kaixara eta pendientak
ez? Zer modur dago Xabi eta guk eta aitak?
Iria ez dakit baina gauza orok orri
maiz egiten adibidez.
Itxaropen berritu, traluparekin itxarotzen...
Oraindik ez ditzut ezan Mexikan mugada
seguro egaritzen dizula bera berru
bardi bad denei agur.

Galdera		1, 2, 3 edo 4
20.	Aurkezpena eta ortografia	2
21.	Koherentzia	2
22.	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	2

Puntuazio horiek Educan sartu behar dira (20., 21. eta 22. galderak).

Aurkezpena eta ortografia

- Itxura garbia. *Itxura ona du, garbi idatzita dago.*
- Letra argia eta erregularra. *Oro har, letra argia, erregularra eta uniforme da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Marjinak neurri batean errespetatzen ditu, baina eskuineko marjina es da uniforme.*
- Ortografia. *Bost ortografia akats baino gutxiago daude*

Alderdi honen balorazioa: *Lau baldintzetatik, gutxi gorabehera, hiru betetzen dit. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.*

Istorioaren koherentzia

- Egitura. *Hautematen da eskutitzaren berezko egitura, baina edukia oso oinarritzkoa eta sinplea da.*
- Paragrafo kopurua. *Testua ez dago ongi egituratuta paragrafotan.*
- Bilakaera tematikoa. *Apur bat nahasia, baina aldi berean garapen logikoa du.*
- Perpausak ideia osoak adierazten dituzte. *Ideia osoak adierazten dituzte eta nahiko perpaus landuak dira.*
- Lotutako perpausak (lokailuak...). *Perpaus batzuk besteekin ez daude ongi loturik, batez ere puntuazioari dagokionean.*
- Ongi zehaztutako pertsonaia eta ekintzak. *Apur bat nahasia da; halere, argi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: *Ikus daitekeenez, sei baldintzetatik hiruzpalau betetzen dit. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.*

Zuzentasun gramatikala

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Perpausen egitura zuzena da kasu batean izan ezik.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Aditzaldia zuzen erabili du.*
- Komunztadura. *Komunztadura akatsak daude.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Mendeko perpaus batzuk (kausazkoa, konpletiboak) sartu ditu.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Ahozko hizkeratik hurbil, baina egokia holako eskutiz batean.*
- Adjektibo eta adizlagunen erabilera. *Lexikoa ez da aberatsa adjektiboen eta adizlagunen erabilerari dagokionez.*

Alderdi honen balorazioa: *Ikus daitekeenez, sei baldintzetatik lau betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.*

3. adibidea

20. Imajina ezazu emigrante bat zarela eta zure lagun bati edo familiari eskutitz bat idazten diozula, herrialde berrian aurkitu duzun bizimodua nolakoa den eta nola sentitzen zaren kontatuz.

idazlana

Kaixo aita eta ama:

New Yorken oso ongi nago, ez dut etxera bueltatu nahi.

Hemen curi asko egiten du baina oso etxe polit batean bizi nahiz.

Espere dut lana harrkitzea eta lagun asko egitea. Izaba bisitatuko dut eta bera ingelesez hitzegiten asko lagunduko ditzala esan dit. Bizar, etxe bizitzarako gauza asko erosiko aitut, baita janaria ere. Egun batean etorri behar zarete! hau zoragarria da, denda, jendea, plaza, etxe bizitzak!... Musu haundi, haundi bat.

Agur!!

Ongi zaindu!!

Galdera		1, 2, 3 edo 4
20.	Aurkezpena eta ortografia	3
21.	Koherentzia	3
22.	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	2

Puntuazio horiek Educan sartu behar dira (20., 21. eta 22. galderak).

Aurkezpena eta ortografia

- Itxura garbia. *Itxura ona ematen du, garbi idatzita dago.*
- Letra argia eta erregularra. *Oro har letra garbia, erregularra eta uniformea da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Marjinak errespetatzen ditu.*
- Ortografia. *Akats gutxi, bakarrik "h"-ren erabileran.*

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzak betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

Istorioaren koherentzia

- Egitura. *Hautematen da eskutitzaren berezko egitura.*
- Paragrafo kopurua. *Paragrafo desberdinetan egituratuta dago, baina ideien eta paragrafoen arteko elkarrekikotasuna ez dago argi.*
- Bilakaera tematikoa. *Bilakaera tematikoa hautematen da; erraz jarraitzen da mezua.*
- Perpausak ideia osoak adierazten dituzte. *Idea osoak adierazten dituzte eta nahiko perpaus landuak dira.*
- Lotutako perpausak (lokailuak...). *Modu egokian erabiltzen ditu lokailuak..*
- Ongi zehaztutako pertsonaia eta ekintzak. *Argi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetatik bost betetzen ditu. Beraz, 2 puntuko puntuazioa legokioke. Hala ere, gainerako adierazleen kalitatea orokorrean ikusirik eta kontuan izanik paragrafoen banaketa erraz zuzentzen ahal den alderdi bat dela, logikoena da 3 puntu ematea.

Zuzentasun gramatikala

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Perpausen egitura zuzena da.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Ongi erabiltzen ditu aditzaldiak.*
- Komunztadura. *Ez dago komunztadura akatsik..*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Mendeko perpaus bat (konpletiboa) erabili du.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Idatzizko erregistroari dagokionez, hizkera hurbila erabili du, baina egokia holako eskutitz batean.*
- Adjektibo eta adizlagunen erabilera. *Adjektiboen eta adizlagunen erabilerari dagokionez, onargarria da.*

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetatik bost betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira, baina 3tik oso gertu.

4. adibidea

20. Imagina ezazu emigrante bat zarela eta zure lagun bati edo familiari eskutitz bat idazten diozula, herrialde berrian aurkitu duzun bizimodua nolakoa den eta nola sentitzen zaren kontatuz.

idazlana

Kaixo Vikky:

Gogoratzen zara ni nire aita, ama eta nire anaiarekin Mendillorria bizi nintzela eta Elorri ikastolara joan nintzela. Ba orain dela hilabete bat Londresera joan nintzen bizitzera nire aita, ama eta anaiarekin. Hegazkinean pista bat urdur negua jaritako nolako izango zen Londres, nire ikastetxea, nire lagunak, nire etxea... Buzero ailegatu nintzeneko Londresera eslojuak ikusi nuen, eta gero nire etxe berria. Nire etxe berria trileta bat da, egongela izugazti handia da, sukaldia modernoa modernoa, nire lagola modernisimoa eta jardina izugazti handia. Ikastolara joan nintzen lehenengo egunean oso urdur negua, baina gero oso gustura lagunak oso atsegiaak zirelako eta ikasitela ere bai. Lagunak bere kareo elektroak eta beraien telefonoa eman zitaten. 15 lagun daukate neskek eta mutilak. Londres handia handia da. Mendillorri baino hogeita hiru aldiz gehiago. Ezin zara gertu txikiindulakeria eta patinaria lagunakia. Denda oso daude eta duzu eta

imaginatu. Buena Vicky, espero dut zu... leziozera...
 etortzea... etortzea... edo ni... New Yorkera joatea...
 zuzi bisita egitera...

Agos

Galdera		1, 2, 3 edo 4
20.	Aurkezpena eta ortografia	3
21.	Koherentzia	3
22.	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	3

Puntuazio horiek Educan sartu behar dira (20., 21. eta 22. galderak).

Aurkezpena eta ortografia

- Itxura garbia. *Itxura ona ematen du. Itxura garbia.*
- Letra argia eta erregularra. *Letra garbia, erregularra eta uniforme da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Oro har, marjinak errespetatzen ditu.*
- Ortografia. *Akats gutxi daude.*

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzak betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

Istoriaren koherentzia

- Egitura. *Hautematen da eskutitzaren berezko egitura, aurkezpena, eta edukia aberatsa da.*
- Paragrafo kopurua. *Testua ez dago paragrafotan ongi egituratuta.*
- Bilakaera tematikoa. *Bilakaera tematikoa hautematen da; erraz jarraitzen da mezua.*
- Perpausek ideia osoak adierazten dituzte. *Idea osoak adierazten dituzte, gainera adin honentzako perpaus landuak dira.*
- Lotutako perpausak (lokailuak...). *Lokailuen erabilera ez da anitza.*
- Ongi zehaztutako pertsonaia eta ekintzak. *Argi eta garbi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetatik laupabost betetzen ditu. Beraz, 2 puntuko puntuazioa legokiok. Hala ere, adierazleen kalitatea orokorrean ikusirik logikoena da 3 puntu ematea (alderdi batzuetan hurbilago dago lautik hirutik baino).

Zuzentasun gramatikala

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Perpausen egitura aberatsa da.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Oso ongi erabiltzen ditu aditzak.*
- Komunztadura. *Ez dago komunztadura akatsik.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Aise betetzen da baldintza hau (konpletiboak, denborazkoa, kausazkoa).*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Idatzizko erregistroa oso aproposa da.*
- Adjektibo eta adizlagunen erabilera. *Adjektiboen eta adizlagunen erabilerari dagokionez, testua egokia da.*

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzak betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

5. adibidea

20. Imajina ezazu emigrante bat zarela eta zure lagun bati edo familiari eskutitz bat idazten diozula, herrialde berrian aurkitu duzun bizimodua nolakoa den eta nola sentitzen zaren kontatuz.

idazlana

Egun on Eneko, nire lagun onena:
Zer moduz Mendillorritik?
Ni hemen New Yorken oso gustoranga,
baina pena eman zidan Mendillorritik mi-
gratzei, bates ere zuzatiki.
Hemen dena berria eta izugarri polita da,
bates ere ganez, zuzatiki? ba dena argiz
betes dagoelako. Oraindik piskat kon-
tatzan zait bemenko jendearekin ko-
munikatze, beraien ingelesez ere
ongi hitz egiten dutelako. Arrigorria
da zenbat jende dagon ikuste, de-
netarik dago, txinatarak, japon-
iarak, euskaldunak (gu), irlandarrak
...
Hemen zinema, supermerkatu... asko
eta eraldak dauka.
Oso hiri suerretua da, denaren gatiki.

Arrope oso garestia da: adibidez NIKE edo
ADIDAS kamiseta bat hiruogeita hamabost
eurotik egin daiteke. Futboleko zapatila
on batzuk hiru ehun laurohun euroaren
artean egoten da gehienetan.
Hemen go eskola ez da oso desberdina.
Saiu ginstiak berdinak dira.

Bueno, espero dut gure bari berri
itxegin ahal izatez.
Besarkada bat agur!!!

Galdera		1, 2, 3 edo 4
20.	Aurkezpena eta ortografia	4
21.	Koherentzia	4
22.	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	3

Puntuazio horiek Educan sartu behar dira
(20., 21. eta 22. galderak).

Aurkezpena eta ortografia

- Itxura garbia. *Itxura ona ematen du. Itxura garbia.*
- Letra argia eta erregularra. *Letra garbia, erregularra eta uniformea da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Marjinak errespetatzen ditu.*
- Ortografia. *Akats gutxi kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4. mailan gaudela.*

Alderdi honen balorazioa: *lau baldintzak aise betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 4 puntu dira.*

Istorioaren koherentzia

- Egitura. *Argi ikusten da eskutitzaren berezko egitura.*
- Paragrafo kopurua. *Testua paragrafotan egituratuta dago eta idatziaren zatien arteko lotura antzematen da.*
- Bilakaera tematikoa. *Bilakaera tematikoa hautematen da. Eskatutako lanari erantzun dio (xede eta luzera).*
- Perpausek ideia osoak adierazten dituzte. *Idea osoak adierazten dituzte, gainera adin honentzako oso perpaus landuak dira.*
- Lotutako perpausak (lokailuak...). *Modu egokian erabiltzen ditu lokailuak.*
- Ongi zehaztutako pertsonaia eta ekintzak. *Argi eta garbi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: *aise betetzen ditu sei baldintza. Beraz, dagokion puntuazioa 4 puntu dira.*

Zuzentasun gramatikala

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Perpausen egitura oso aberatsa da.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Oso ongi erabiltzen ditu aditzak*
- Komunztadura. *Ez dago komunztadura akatsik.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Mendeko perpausak sartu ditu (kausazkoak, erlatibozkoa).*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Idatzizko erregistroa oso egokia da; hartzailea kontuan hartzen du.*
- Adjektibo eta adizlagunen erabilera. *Adjektiboen eta adizlagunen erabilerari dagokionez, testua egokia da.*

Alderdi honen balorazioa: *sei baldintzak betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.*